



**7/2020 Jarraibidea, 2020ko maiatzaren 11koa, Justizia Administrazioiko zuzendariarena, maiatzaren 8ko JUS/394/2020 Aginduaren zenbait alderdi zehazten dituen (JUS/394/2020 Agindua, maiatzaren 8koa, COVID-19ren aurrean Justizia Administrazioa Deseskalatzeko Plana eta Laneko Segurtasunaren Eskema onartzen dituen).**

Justiziako ministroaren maiatzaren 8ko JUS/394/2020 Aginduak, Lan Segurtasunaren Eskema eta COVID-19ren aurrean Justizia Administrazioa Deseskalatzeko Plana onartzen dituenak, jasotzen duen bezala, Justizia Administrazioa da berriro aktibatu behar den jarduera-eremuetako bat, eta, horretarako, ahalik eta segurtasun-bermerik handienak hartu behar dira Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileentzat.

Horretarako, deseskalatzeko plan bat egin da, eta hainbat fase ezartzen ditu plan horrek. Fase horiek osasun-agintarien jarraibideen arabera aktibatuko dira, maiatzaren 8ko JUS/394/2020 Aginduaren II. eranskinean ("Deseskalatzeko Plana-Programatutako Birlaneratzearen Hasiera") jasotakoaren arabera.

Horregatik, plan hori gure erkidegoan behar bezala ezartzeko, honako jarraibide hauek ematen dira:

**Lehenengoa.** - Lehen fase honetan, "Programatutako laneratzearen hasieran", gizarte-distantzia izango da babes kolektiborako neurri nagusia. Ondorioz, lanpostu guztietan 2 metro inguruko gutxieneko segurtasun-tarteak ezarriko dira.

Organo eta bulegoetako lanpostu guztien azterketa egin ondoren, ezarri da zein lanpostu erabil daitezkeen aldi berean 2 metroko distantzia errespetatuz. Azterlan horren ondorioz, koloreen mapa bat egin da, honako esanahia duena:

**Urdina eta gorria:** bereizgarri urdina dutenak edo bereizgarri gorria dutenak bakarrik bete ahal izango dira txanda berean.

**Berdea:** beste ezein lanposturekin talka egiten ez duten lanpostuak dira, eta, beraz, etengabe beteta egon daitezke.

**Laranja:** beste postuekin talka egiten ez duten mostradore-postuak dira, eta, beraz, etengabe beteta egon daitezke.

Lanpostu bakoitza dagokion kolorearekin markatuko da.



**Bigarrena.** - II. eta III. faseetan funtzionarioak gehitu egingo direnez beren lanpostuetan, lanpostu batetik bestera 2 metroko distantzia ziurtatu ezin den organo eta bulegoetan arratsaldeko txandak ezarriko dira.

**Hirugarrena.** - - Maiatzaren 8ko JUS/394/2020 Agindua ezartzen duen bezala, beren lanpostuan fase desberdinetan hasi beharko duten langileak organo edo bulego bakoitzaren benetako plantillari bi ehunekoaren arteko tarte aplikatuta kalkulatuko dira, Agindua berak jasotzen dituen salbuespenak kontuan harturik. Hala ere, gerta liteke aplikazio horretatik zenbaki osoak ez ateratzea. Kasu horretan, Agindua berak honako hau adierazten du: *"Txanda egin behar duten pertsonen kopurua ezarritako ehunekoaren barruan esleitzerik ez badago, pertsona guztiak joan beharko dute hiru eguneko epean, baita ehuneko desberdinetan ere"*.

Puntu hori argitzeko, honako adibide hauek jarri dira:

**1. adibidea-4 pertsonako plantilla:**

	Eraitza	Beharazko biribiltzea	Eraitza	Goranzko biribiltzea	Eraitza	Oharrak
%30	1,2	1	%25	2	%50	Urkilaren tartetik kanpo, bi kasuetan
%40	1,6	1	%25	2	%50	Urkilaren tartetik kanpo, bi kasuetan

Beraz, hona hemen lanpostura joan beharko luketen pertsonen kopurua, adibidearen arabera:

Maiatzaren 12an	Maiatzaren 13an	Maiatzaren 14an	Maiatzaren 15ean	Maiatzaren 18an
2 pertsona	Pertsona 1	2 pertsona	Pertsona 1	2 pertsona

**2. adibidea- 8 pertsonako plantilla:**

	Eraitza	Beharazko biribiltzea	Eraitza	Goranzko biribiltzea	Eraitza	Oharrak
%30	2,40	2	%25	3	%37,5	Goranzko biribiltzea tartearen barruan geratzen da.
%40	3,20	3	%37,5	4	%50	Beharazko biribiltzea tartearen barruan geratzen da.



Beraz, hona hemen lanpostura joan beharko luketen pertsonen kopurua, adibidearen arabera:

Maiatzaren 12an	Maiatzaren 13an	Maiatzaren 14an	Maiatzaren 15ean	Maiatzaren 18an
3 pertsona	3 pertsona	3 pertsona	3 pertsona	3 pertsona

Fase bakoitzerako ezarritakoarekin bat etorrituz, Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak honako agiri hauek bidaliko dizkie astero Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko lurralde zuzendariordeei, probintzia-idazkari koordinatzaileei eta lurralde-fiskalei, fase-aldaketa gertatzen den nean:

- Excel bat, egun eta txanda bakoitzean beren lanpostura joan behar duten pertsonen kopuruarekin.
- Eskuragarri dauden langileen zerrenda.

**Laugarrena.** – Zerbitzua goizez bakarrik ematen den organo eta bulegoetan, ohiko ordutegia beteko da, zazpi ordu eta hogeita hamar minutukoa, eta lanaldi-murrizketek bere horretan jarraituko dute.

Goizeko eta arratsaldeko txandak ezartzen diren tokietan, goizeko txandaren ordutegia sei ordukoa izango da, eta arratsaldekoa, berriz, lau ordu eta hogeita hamar minutukoa, eta lanaldi-murrizketa aitortuta duten langileei dagozkien doikuntzak egingo zaizkie, modu proportzionalan.

Goizeko edo arratsaldeko txandak egiten dituzten langileek ez dute hogeita hamar minutuko atsedena hartzeko eskubiderik izango.

**Bosgarrena.** - Lantokietara sartzeko, aurretik duen pertsonarekiko bi metroko distantzia mantendu beharko da beti, eta distantzia hori lantokietako gainerako espazioetan ere mantendu beharko da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 11

Izpea.: M<sup>a</sup> Isabel Gabriel Bellido  
Justizia Administrazioiko zuzendaria

